


## Herrera

# Mende laurdeneko historia

Herrerako Euskal Giroa elkarteak 25 urte bete ditu aurten. Zilarrezko ezteien ildotik, elkarteak aldizkari bat kaleratu du, urte hauetan bultzatutako ekintzak bilduz.

**E**lkartea 1978an sortu zen, eta hasieratik mistoa izan da. Euskal Giroa-ko gizon-zeko-emakumezkoek hamai-ka ekimen egin dituzte 25 urteotan. Mus txapelketa da horietako bat: gutxi gorabehera, 90-100 bikotek parte hartu ohi dute urtero txapelketan, eta pasadizo barregarriak ez dira falta izan. Behin, adibidez, jokalariek batek ez zuen porrota batere ondo hartu; "txapelketa irabazi behar nuen", oihukatu zuen muslari tematiak. Hain zen jokalaria nekagarria, non elkarteko lagunek sarreraraino lagundu behar izan zituzten, bakean utz zitzan.

Boloak ere oso sustraituta daude Euskal Giroan. Emakume elkartekide batzuk eta zenbait haur hasi ziren bolotan. Gipuzkoako Federazioak, baina, ez zuen begi onez ikusi emakumeen ekimena, boloak nonbait gizon adinduen kirola zelako. Iritziak iritzi, emakumezkoek eta gatzetxoek ez zu-



### Sorreratik elkarte mistoa izan da

ten etsi eta lozorroan zegoen kirola auzoan suspertzea lortu zuten. Boloan alde egindako lana dela eta, sariak jaso ditu Euskal Giroak, eta 2002an Euskal Herriko bolo txapelketa Herreran jokatu zen. Bestalde, pilota txapelketa ere sona handia hartu du. Eta igande goizeko ibilaldiak eta Herrerako jaietako danborrada ere jendetsuak izaten dira.

Elkarte gastronomikoa ere bada Euskal Giroa, eta bertako zenbait kidek sariak eskuratu izan dituzte sukaldaritza lehiaketetan. Aldizkarian, saritutako errezeta batzuk jaso dituzte, "Bakailaoa papillot erara" eta "Euskal Giroko izokina", kasu.

### Galdutako ekimenak

Bestalde, badira urteen poderioz galdu diren ekimenak. 1984tik 1989ra, Txirrita Bertso Paper Lehiaketa antolatu zuen

Herrerako elkarteak. Ekimen honetan, ikastetxeetako neska-mutiek parte hartzen zuten; elkartean bertan idazten zituzten bertsoak eta frontoian egiten zuten sari bana-keta. Sariak emateaz gain, bertsolari gazteek bertsotan jarduten zuten; hor ibili ziren, adibidez, Jon Sarasua edo Xabier Euskitze. Bertso-saioaren ostean, herri bazkaria izaten zen elkartean. Besteak beste, Lazkao-Txiki eta Mañukorta bertsotan aritu ziren bazkari haietan. Txirringulari taldea ere izan zuen Euskal Giroak.

Elkarteak bazkide guztiei helarazi die aldizkaria. Dena dela, auzotarren batek ale bat eskuratu nahi badu, Euskal Giroaren egoitzara jo besterik ez du.

### Euskal Giroa-ren ereserkia

Hona hemen elkarteko kide batzuen Euskal Giroa sortu eta guxlira eginda ko abestia. Letra Gintz Munikak egin zuen, musika Aitor Badolak eta pentagrama Kris Aldasorok.

Betiko txoko eta bazterrik gozora  
Lapurizulo, Bidebieta  
Guardapiata, Tantarrens, Oleta  
Peruene eta Errotazana

Suspertuko gure kaleetan euskara  
suspertuko gure artean Euskal Giroa  
alaitasuna eta poza darioa  
Elkarte-iturr oparok

Auzotarren alegera  
etorri da gure artea  
egun alai eta ederra  
eman dezagun barera  
Auzotarren alegera  
etorri da gure artea  
ez dadila sekulan falta  
Euskal Giroa Herreran  
ez dadila sekulan falta  
Euskal Giroa auzo honetan

Txokoz-txokoz, bazterrik, bazter-urratsak  
Kaxkarre, Jolastokieta

Txingurni, Arroiri, Gomistegi, Mendola

"La Herrera" -tik batelerak

Umore ona zabalduz goazela  
badator berniz ere Euskal Giroa  
alaitasuna eta poza darioa

Elkarte-iturr oparok

Auzotarren alegera

